

# EKINTZAILE ETA SORTZAILE ZENTROA LEKEITION// MEMORIA PROIEKTUALA

Arrantza inguruko ondare arkitektonikoaren azterketa eta gaurkotzea Lekeition

Ikaslea: Ane Larrinaga Larrucea
Tutoreak: Izaskun Aseguinolaza Braga
Koldo Telleria Andueza
Master Amaierako Lana // 2018/06/27

AURKIBIDEA

00// INTERBENTZIO MOTA.....01
01// KOKAPENA.....02
02//GARAPEN HISTORIKOAK.....03-08
02.1 Hiribilduaren bilakaera.....04
02.2 Portuaren bilakaera.....05
02.3 Arrantza industriaren bilakaera.....06
02.4 Tradizioa eta kultura.....07
02.5 Ekonomia.....08
03// EGUNGO HERRIAREN EGOERA.....09
04// AZTERKETAREN ONDORIOAK.....10
05// ESTRATEGIA OROKORRAK.....11
06// ARRANTZA ONDAREA.....12-15
07// ALDE ZAHARRA ETA KONEXIO BERRIAK.....16
08// KOKAPEN GERTUA.....17
09// INGURUAREN BILAKAERA.....18
10// EREMUAREN EGUNGO EGOERA.....19-23
11// HIRIGINTZA.....24
12// PROIEKTUAREN PRINTZIPIO TEORIKOAK.....25
13// PROPOSAMENA.....26
14// PROGRAMA.....27
15// PROIEKTUAREN PLANOAK.....28-41
15.1 Oinak.....28-33
15.2 Ebaketak.....34-41
16// BISTAK.....42
17// ERAIKUNTZA.....43-44
18// EGITURAK.....45
19// INSTALAKUNTZAK.....46-47

Lekeitioren garapenean etorkizunera begira, historikoki garrantzia handiena izan duen eta gaur egun herriaren gune beltz bat bilakatu den eremu bat berreskuratzeko nahiarekin aukeratu dira bai Lekeitioko San Pedro Kofradia Zaharra eta bai bere alboan kokatzen den Keleria. Azken hau, historikoki eta baita gaur egun ere izotzaren produkzioaz arduratu da.

Baina eraikin hauek aztertzerakoan ezinbestekoa ikusi da hauen atzekaldean dauden fabrika degradatuak ere eremuaren birgaitze baten parte izatea.

Beraz, eraikin historikoen birgaitzeaz gain espazio publiko baten birgaitzea proposatuko da eta honek ortuko duen eraikuntza berrien sorrera.

# KOKAPENA

Arrantza inguruko ondare arkitektonikoaren azterketa eta gaurkotzea Lekeition






## LEKEITIO

Lekeitio, Bizkaiko kostaldeko 7500 biztanleko eta 1.8km2-ko udalerri euskaldun arrantzalea da, Lea-Artibai eskualdean kokatua.
Bilbotik 56 kilometrora eta Donostiatik 72 kilometrotara kokatzen da. Ekialdean 12 kilometrotara Ondarroa herria kokatzen da, baina berez, Ispasterrek mendebaldean, Mendexak ekialdean eta Amorotok hegoaldean mugatzen dute.
Otoio eta Lumentza mendiek inguratzen dute, eta Lea ibaiak zeharkatzen du. Izan ere, Mendexa eta Lekeitio artean itsasoratzen da Lea ibaia. Herria badia txiki baten mendebaldean dago kokatuta, itsasotik nolabaiteko babesa lortuz.. Badia horren erdian, Garraitz edo San Nikolas irla dago, udalerriko zati ere badena eta gainera Isuntza hondartzarekin malekoi baten bitartez elkarturik dago. Isuntza hodartza du eta herriaren erdigunean kokatzen da.


Ikaslea: Ane Larrinaga Larrucea
Tutorea: Koldo Telleria Andueza

01// HIRIBILDUAREN BILAKAERA

02// PORTUAREN BILAKAERA

03// ARRANTZA INDUSTRIAREN BILAKAERA

04// TRADIZIOA ETA KULTURA

05// EKONOMIA

# 03

Ikaslea: Ane Larrinaga Larrucea
Tutorea: Koldo Telleria Andueza

1:7500




### 1325 urte aurreko asentamendua

1- Berriotxoa kaleko atea
2- Portal de Elizatea
3- Gerrikabeitia kaleko atea
A- Santo Domingo Konbentua
B- Uriarte Jauregia eta dorrea
C-Campillua




### 1325 urte osteko asentamendua

4- San Pedro atea
5- Apalloa atea
6- Astillero atea




### XV.mendeko asentamendua

7- Trinitate atea
8- San Nicolas atea
Hauek suteen kontrako harresiaren bi aldeetan kokatzen dira.




### XVI. mendeko asentamendua

9- Ateako atea
10- Zumazeta atea
D- San Cristobal plaza
E- Gamarra plaza
F- Plaza Zaharra
G- Astilleroko Plaza
•• Mantentzen den harresi zatia

**LEKEITIOREN SORRERA**

Gerra Zibilaren aurretik Lumentzako kobaren aztarnategia induskatu zuten. Bertan, espektro kultura izugarria dago , Goi Paleolitotik Erromatar kulturararte. Horrez gain, Jose Miguel Barandiaranek 60ko hamarkadan beste aztarnategi baten existentzia ziurtatu zuen, moluskoen biltzaileen asentamendua Santa Katalinan.

Gainera, hirigunean azkenaldian egindako indusketetan erromatarren garaiko arrasto arkeologikoak aurkitu dituzte -I.mende bukaeratik V. mende hasierararte- orduko asentamenduak egon zirela adierazten dutenak, oraindik lanean dabiltza.

Lekeitioren historia ofiziala 1325ean hasten da. Urte honetan Maria Diaz de Harok, Bizkaiako andreak, herri gutuna eman zion, herriari hiribildu izaera emango ziona, abantaila juridiko, komertzial, fiskal, militar eta erlijiotsuak bermetuz. Geroago, 1334an, fundazioa berretsia izan zen Alfonso XI.agaitik, bere erreinuaren menpe eraiki ziren lehen harresiak, aurretik ere bazegoen harresi antzeko bat.

Administrazio lokalaren gestio autonomia handia ematen zien Lekeitiarrei, baita lehen instantzia judiziala, garapen urbanoa, aktibitate ekonomikoa eta egungo udaletxearen parekoaren karguen izendatzeak:udalbatza.

Udalbatza batez ere, epaileak ziren.

**AUZOAK**

Bilakaera dela eta bi auzotan banatzen da, batetik Alde Zaharra eta bestetik Arranegi , hau arrantzaleen auzoa izango da. Arranegi kalea izango du eta honeri perpendikularki kokaturik dauden harrizko kale maldatsu eta estuak, batzuk moilara eta besteak harresirantza: Apalloa, Uribarria, Intxaurrondo, La Pedrera, Atxabal eta Zaldundegi.

**HARRESIA**

Harresia handituz joan zen Erdi Aroan zehar , gune batzuetan eraikinak berak izanik harresi izaera.




Ikaslea: Ane Larrinaga Larrucea
Tutorea: Koldo Telleria Andueza

## XV.MENDEA




### Txatxo Kaia PORTUA

Txatxo Kaia Chacho izenetik dator, itsasgizon lekeitiarra, Cristobal Coloni lagundu zion bere lehen bidaian Ameriketara, ustez kontramaisu joanda Santa Maria barkuan. 1381.urteaz gero, baleen mihiek emandako heren bi moilak konpontzeko erabiltzen ziren, hirugarren herena elizarentzako.

Lehen portua Lea ibaiaren inguruan kokatzen zen.

XV. mendean itsasontziak hiru tokitan amarratzen ziren: Lea ibaiaren ertzeetan, badiako hondartzan eta Kaian, gaur egun portua kokatzen den tokian.

## XVI-MENDEA




XVI. mendean Kai deiturikoaren aurrean bi moila zeuden, bat zuzena Nazanueva izenekoa eta bestea okerra Nazazarra izenekoa, bien artetik txalupak eta nabioak sartzen ziren, nasabittartia. Moila horien iparraldean holandako moila zegoen kokatua, bertan Europatik etorritako itsasontziak amarratzen ziren, Holandarrak adibidez.





### LAZUNARRI EDO ISLAKO MOILA

Portua lehorretan gelditzen zen itsasberan haren sarreran eta barran hondarra ez pilatzeko, XVIII. mendearen hasieraz gero zenbait ahalegin egin ziren itsasadarra kanalizatzeko. Villarreal de Berriztarren asmoaren arabera, Lea ibaia Karraspio hondartzarantz desbideratzekoa. Islako moila edo Malekoia 1856an amaitu zen , nabigazioa errezten zuen itsasadar aldetik, izan ere, ekaitza zenean ezin zen portura sartu edo txalupak lehorretan gelditzen ziren marea beheran, horrela egun gehiago egongo ziren arrantzan urtetzeko.

### GAUR EGUNGO PORTUA



XIX.mende amaieran, antzinako bi nasak kendu eta hainbat moila eraiki ziren: Abadeen moila, plaza azpikoa, Txatxo Kaia eta Iparraldeko moila, 1887-1891.Portuko besoek, tinglatuak eta abadeen moilak itsasoa lasaitzeko eta ontziak eta pertsonak ekaitzetik babesteko balio dute eta karga eta deskargak errazteko.

Portu berria eraiki zen arte arranegi kaleko etxeen fatxadek hondartzara ematen zuten zuzenean, eta marea goran itsasora. Egoera hark kalteak eragiten zituen etxeetan. Fatxadetan leihoak eta balkoiak kendu eta miradoreak egiteko joera nagusitu zen XX. mende hasieratik. Tradizio kutsua gutxitu zuen. Moilara ematen duten etxeetan, beheak bodegak izan dira oraintsu arte, arrantza tresnak eta gordetzeko. Horregaitik atari guztiak atzekaldean kokatzen dira.

### TALA

Portu berriaren iparraldean XX.mende hasieran eraiki zen olatuak apurtzen diren tokian. Tala izena du antzina talaia bertan kokatzen zelako, San Juan Talako Baselizaren alboan.



## XIX.MENDEA




1-Abadeen moila
2-Plaza azpiko moila
3- Txatxo Kaia
4-Iparraldeko moila
5-Lauznarri edo islako moila

## XX.MENDEA




a- San Pedro Kofradia Zaharra
b- Gaur egungo Kofradia
c-Tala


Ikaslea: Ane Larrinaga Larrucea
Tutorea: Koldo Telleria Andueza

# 03// ARRANTZA NDUSTRIAREN BILAKAERA

Arrantza inguruko ondare arkitektonikoaren azterketa eta gaurkotzea Lekeition

1:15000




XVI. MENDEA




XVII eta XVIII. MENDEAK




XIX eta XX. MENDEAK

1- San Nicolas Irla

2- Ontziolak

3- Madalenako ermita

4- Lumentza begiratokia

5- Portutxu

6- Bosinaurreta ainguratze gunea

7- Errenteria

8- Zubieta

9- Arragoa

10- Marea Errota

11- Egur fabrikak

12- Garavilla fabrika

13- Latoneria

14- Nautika eskola

15- San Pedro Kofradia zaharra eta Izotza fabrika

16- Kontserberak

17- Merkatua

18- San Juan Talako

19- Santa Katalina Itsasargia

20- Atalaya



Ikaslea: Ane Larrinaga Larrucea
Tutorea: Koldo Telleria Andueza









## TRADIZIOA eta FESTIBITATEAK

Arrantzaren inguruko festibitate, gastronomia, eta artesania tradizio indartsuak ditu herriak

### SAN PEDROAK

Arrantzaren inguruko festibitate horien artean San Pedro eguna dago:
Lekeitioko Kofradia Zaharra eta Izotz fabrikaren artean kokatzen den San Pedroren santua, oso garrantzitsua da Lekeitiarrentzat, izan ere, **Kaxarranka dantzaldia** egiten da bertan urtero, San Pedro egunean, arbasoengandik zuzenean jasotako ospakizuna dena.

Kaxarrankak, arrantzaleen kofradiako buruaren aldaketan du jatorria. Hurrengo egunean, ekainaren 30ean, buru berriaren etxera eroan ohi ziren kofradiako ondasunak, eta etxe aldaketan dantza egiten zen diru kutxaren gainean.
Goizean goiz dei ettekuak hasten dira kalez kale, antzina arrantzaleak esnatzea zen dei horien helburua, portura joan, ontzian sartu eta itsasora zitezen.

Santa Maria elizako meza nagusiaren ostean, San Pedroren omenezko prozesioa egiten da, ondoren kilin-kalakoa egiten da San Pedroren irudiaren parean. Arrantza sasoia ona izatea eskatzen da horrela, santuaren irudia uretara botatzeko keinua eginez.
Geldialdiak San Pedro ren irudiaren parean lehenengo eta Kofradian gero egiten dira.

### SAN ANTOLINAK

**Antzar eguna**k hiurehun urte baino gehiagoko tradizioa du, hemen bakarrik hartzen zuten parte, 12 arraunlarik eta patroiak. Hasiera batean antzarra bizirik egoten zen gaur egun aldiz, kualdrila bakoitzak potina edukitzen du, bakoitzean 6 arraunlari eta patroia, eta harrapatzaile bat, hau antzarra harrapatu eta altzada gehien egiten saiatu behar da eta baita antzarrari burua kentzen. Gaur egun ez daude bizirik eta plastikozkoak edota benetazkoak izan daitezke.



## EKONOMIAren bilakaera

**XIV. MENDEAN** , komertziorako puntu estrategikoan kokatzen zen herria, Bermeo eta Gipuzkoa artean, 1338an untziolak zeuden jada herrian.



**BURDINOLA**, Lea Ibarreko burdinolak hornitzen zituzten, Somorrostrotik ekartzen ziren mineralak, bertan burdina gorde saldu eta erosi egiten zen, XIX.mendearen bigarren erdira arte

**BALEAREN ARRANTZA**, garrantzitsua izan zen Lekeition erdi aroan eta aro modernoan, Herriko armarrian ageri da horren garrantzia.



Betidanik itsasotik bizi izan den herria da, Bizkaiako bigarren portu garrantzitsuena, izatera iritsi zen.

**XIX. eta XX. mendeetan** arrantzaren inguruko hainbat fabrika, kontserbera, ontziola, zurezko fabrikak martxan jarri ziren. Gizonak itsasoratzen ziren bitartean emakumeak arrain fabriketan eta herriko komertzioetan egiten zuten lan.



**Emakumeen** lanak garrantzia handia izan zuen herriaren garapenean eta ekonomian, beraien esku geratzen baitzen.

**XX. mendean** izugarrizko krisia egon zen arrantza sektorean, hau dela eta, herriaren ekonomiak behera egin zuen, eta industria ugari galdu ziren. Arrantza sektorearen krisiarekin batera betidanik egon den turismoak gora egin zuen.



# EGUNGO HERRIAREN EGOERA

Arrantza inguruko ondare arkitektonikoaren azterketa eta gaurkotzea Lekeition

1:10000




## 1. MUGIKORTASUNA

TAXI GELTOKIA
AUTOBUS GELTOKIA
KOTXEEN IBILBIDEA
APARKALEKUAK P
BIZIKLETAK ETA OINEZKOEN IBILBIDEA

## 2. EKIPAMENDUAK

KIROL EKIPAMENDUAK
HEZKUNTZA EKIPAMENDUAK
KULTUR EKIPAMENDUAK
OSASUN EKIPAMENDUAK
ZERBITZU EKIPAMENDUA EDO UDALETXEA

## 3. KOMERTZIOA

TABERNAK
MERKATUA
DENDA LOKALAK

## 4. ESPAZIO LIBRE PUBLIKOAK

## 5. ERAIKIN ERLIJIOTSUAK

## 6 MONUMENTUAK

MONUMENTU MULTZOA
MUNUMENTUA
INTERES HISTORIKO ARTISTIKO ETA KULTURAK PAISAJISTI-KOKO ERAIKUNTZAK

## 7.ARRANTZAREN INGURUKO ERAIKINAK

## ONDORIOAK:

Aparkalekuak herriaren sarreretan daude, baina hau mantentzea beharrezko ikusten da, gehiegizko auto kontzentrazioa ez izateko herri barnean. Horrez gain, bizikletentzako bide egokiak eta gehiago aurreikusi beharko lirateke, baita bizikletak izteko tokiak.
Komertzioari dagokionez, nabari da bi ardatz nagusi daudela, portuko taberna ilara eta Paskual Abaroa Etorbidekoa, bertan komertzioak kokatzen dira batez ere, baina baita taberna batzuk.
Ekipamenduei dagokionez gehienbat Portal de Atean kokatzen dira, hala ere badaude kirol eta kultur ekipamenduak herriaren erdialdean, eta denetarik egon arren errefortzu beharra egongo litzateke azalerari dagokionez.



Ikaslea: Ane Larrinaga Larrucea
Tutorea: Koldo Telleria Andueza

ONDORIOAKHerri mailako proposamena

01// Arrantza ondareari garrantzia eman
02// Natur guneak babestu
03// Herriaren ekonomia indartu eta arrantza berreskuratzen saiatu
04// Turismo jasangarria bultzatu
05// Tradizioa eta kultura errespetatu eta indartu
06// Espazio publiko egokiak sortu herritarrentzako/ estaliak eta ez estaliak

ESTRATEGIA NAGUSIOA // Hiru ardatz

01// IBILBIDE TURISTIKOA
//Natur guneak berreskuratzea eta mantentzea
//Oinezkoen ibilbideak egokitzea
02// ITSAS KONEKZIOA
//Kofradia berreskuratzea arrantza zentro gisa
03// ALDE ZAHARRAREN INDARBERRITZEA
//Herritarren parte hartzea
//Kofradia alde zaharraren konexioak berreskuratzeko eta egokitzeko elementu estrategiko gisa erabiltzea
//Etxebizitza eraikinen indarberritzea
//Ekipamendu sakabanaketa alde zaharraren indarberritze prozesuaren parte




IBILBIDE TURISTIKOA

1- ATALAYA
2-SANTA KATALINA ITSASARGIA
3-SAN JUAN ERMITA
4- SAN PEDRO KOFRADIA ETA ARRAIN FABRIKA
5-LAGAR DE SOSOAGA
6-SAN NICOLAS IRLA
7-ONTZIOLAK
8-MAREA ERROTA
9-LUMENTZA

ALDE ZAHARRAREN INDARBERRITZEA / ARDATZ PUBLIKO BERRIEN SORRERA

1-KIROL EKIPAMENDUAK ETA ESKOLAK
2-KULTUR ETXEA
3-EKINTZAILE ZENTROA
4-KIROLDEGIA

ITSAS KONEKZIOA

BULEGO ZENTRALAK ITSASOAREKIN KONEKTATUAK


Ikaslea: Ane Larrinaga Larrucea
Tutorea: Koldo Telleria Andueza

## 1-TALAIA

KOKAPENA: Otoio mendiaren gailurrean.
NOIZ: XIX.mendea



ERABILERA: Atalayeroaren gotorlekua, hau gune estrategikoa izaten zen bigilantzia egiteko, itsasotik etsairen bat bazetorren jakinarazteko.



EGUNGO EGOERA: Berriztatua
EGUNGO ERABILERA; Interpretazio zentroa, Atalayeroa nola bizi zen uler daiteke. Begiratoki bezela ere funtzionatzen du.



MATERIALAK: Harrizko eraikuntza xumea.

BALOREA: Paisajistiko eta historikoa.
EGINBEHARREKOA: Paisaia babestu eta mantentzea





## 2-SANTA KATALINA ITSASARGIA

KOKAPENA: Santa Katalina
NOIZ: XIX.mendea

ERABILERA: Marinelei orientatzeko eta etxera bueltatzen laguntzeko erabiltzen zen.

EGUNGO EGOERA: Berriztatua, irisgarria.
EGUNGO ERABILERA: Nabigazio teknologiaren interpretazio zentroa da, edukiak ulertzen laguntzen duten teknologia tresnen bitartez, herritar eta bisitariei, antzinatik edukiak ulertzen laguntzen duten teknologia tresnen bitartez, herritar eta bisitariei, antzinatik gaur arteko nabigazioaren oinarriak ezagutzera eman eta gure marinelek lehorrarekin lotzen zituen itsasargiaren argia ikustean sentitzen zutena sentiarazten laguntzen dute.

MATERIALAK: Harrizko eraikuntza. Berrikuntza zuraren erabilera nagusi.

BALOREA: Paisajistiko , historiko eta arkitektonikoa.
EGINBEHARREKOA: Inguruko paisaia mantentze lanak.













## 3-SAN JUAN ERMITA/TALA

KOKAPENA: Lekeitioko portuko Atalaian kokatzen da, Talan, olatu hormaren gainean, eta San Nicolas irlaren aurrean.
NOIZ: XVIII. mendea

FUNTZIOA: Marinelei orientatzeko eta etxera bueltatzen laguntzeko erabiltzen zen eta ermita funtzioa .

ITSASOAREKIN HARREMANA: Itsasoko ura bedeinkatzen zan bertan, ekaitzak gutxitzeko eta dena ondo joan zedin.

EGUNGO EGOERA: Ez erabilgarria.

MATERIALAK: Zura eta harria.

BALOREA: Kultural- historikoa.

EGINBEHARREKOA: Berriztatze lanak.





## 5-LAGAR DE SOSOSAGA/Santa Elena Ermita

KOKAPENA: Sosoaga jauregian aurkitu zen ,gaur egun Santa Elena ermitan kokatzen da. Itsasoari begira eta parkearen aurrean.
NOIZ: XVII. mendea.

FUNTZIOA: Euskal Herriko txakoli dolare zaharrena.

ITSASOAREKIN HARREMANA: Arrantzaleen kontsumoa, Erdi Aroko ordenantza zaharrek Ardoa eta Arrainaren Bidetik zehar Errioxatik iristen zen ardoa edatea debekatzen zuten, herriko txakolina amaitu arte.

EGUNGO EGOERA: Santa Elena ermita berriztatu da honen musealizazioari ekiteko, hau bere barnean kokatzeko, eta irisgarria da.

MATERIALAK: Zura.

BALOREA: Kultural-historikoa.





## 6- SAN NICOLAS IRLA/ ERMITA

KOKAPENA: Karraspio eta Isuntza hondartzen artean.
NOIZ:XVI. mendetik San Nicolas irla deitua.

FUNTZIOA: Frantziskanoak bizi ziren XVII.menderarte baina ez zegoen urik.
ITSASOAREKIN HARREMANA: San Nicolas arrantzaleen patroia zen

BEREIZGARRIA: Malekoia, herriarekin elkartzen duena, portuan harea ez multzokatzeko eraiki zen, Leako urak Karraspiorantz bideratzeko.

EGUNGO EGOERA: Malekoia berriztatua dago, baina irlako eraikuntzak egoera txarrean daude, eta paisaia ere ez dago egoera onean.
EGUNGO ERABILERA: Gaur egun, marea baju dagoenean jende askok du bertara joateko ohitura, bertatik dena ikusten baita.

MATERIALAK: Harroka

BALOREA: Paisajistiko eta kulturala.

EGINBEHARREKOA: Inguruko paisaia mantentze lanak, zuhaitzak birlandatu.



## 7-ONTZIOLAK

KOKAPENA:Lea ibaiaren inguruan kokatzen dira.
NOIZ: XIX eta XX. mendeetan, aurretik ere eraiki ziren, hala ere, beste ontziola batzuk.

FUNTZIOA: Ontziak eraiki eta konpontzen ziren.
EGUNGO EGOERA: Hiru mantentzen dira, Mendieta, Egiguren eta Murelaga.
Egiguren, berriztatua dago, baina erabilera gabe, Mendieta, egoera txarrean dago, hala ere, badago proiekturen bat berriztapenetarako izan ere ondare izendatzea lortu dute, eta hirugarrengoak martxan jarraitzen du, itsasontziak konpontzen.

MATERIALAK: Zurezko eraikin funtzionalak.

BALOREA: Kultural-historiko, ondare industrial bezela kontsideratuak..
PROPOSAMENA: Berriztapena, interpretazio zentroa, eta gaur eguneko ingurura moldatzea eta irisgarria bilakatzea.





## 8-MAREA ERROTA

KOKAPENA: Lea ibaiaren ertzean.
NOIZ: XVII. mendean lehorte baten ondorioz.

FUNTZIOA: Ibaiko errota baten bezala harrizko dike bat zuen, marea altu zegoenean betetzen zena eta baju zegoenean utzitzen zena, horrek errota funtzionatzea eragiten zuen.

EGUNGO EGOERA: Berriztatua.
EGUNGO ERABILERA: Interpretazio zentroa,

MATERIALAK: Harria.
BALOREA: Paisajistikoa eta historikoa.
EGINBEHARRAK: Inguruko paisaia egoki mantentzea.





## 9-LUMENTZA

KOKAPENA: Lea ibaiaren bokalaren albo batean kokatzen da.

FUNTZIOA: Bertan suak pizten zituzten marinelei badiaren sarrera seinaleztatzeko, Atalaia gisa ere funtzionatu zuen, bertatik baleren bat bazegoen ikusten zuten eta marinelei abisatu hura harrapatzera joan zitezen.

EGUNGO EGOERA: Egoera onean mantentzen da, gune natural gisa.
EGUNGO ERABILERA: Begiratoki gisa erabiltzen da.

BALOREA: Paisajistiko eta historiko-kulturala.

EGINBEHARREKOA: Inguruko paisaia mantentze lanak.







## 4-SAN PEDROKOFRADIA ZAHARRA ETA IZOTZ FABRIKA

ERAIKITZE DATA: Kofradia 1820an eta Keleria edo izotz fabrika XX mendean eraiki zen.

Kofradia ESTILO NEOKLASIIKOA

KOKAPENA: Alde Zaharreko Ezpeleta kalea, portuarekiko paralelo kokatzen da, Lekeitioko alde zaharrean.

FUNTZIOA: Kofradia arrainaren monopolioaz arduratzen zen eraikina zen, Kofradiako buruak, kofradia kudeatu eta diru kontuak antolatzen zituen. Bertan gerora beste hainbat funtzio izan dira, baita eskolarena ere. Keleria betidanik erabili izan da izotza egiteko, 1985ean makina sartu zuten eraikin barnean, portuarekin konektatua.

EGUNGO EGOERA: San Pedro Kofradia egoera onean dago, duela urte gutxi berriztatu baitzen. Keleria edo izotz fabrikari dagokionez egoera ez da horren ona izan ere estalkiaren parte bat falta zaio eta beste zenbait arazo ditu, nahiz eta ezer larria ez izan.

EGUNGO ERABILERA: Kofradia hutsa dago, erabilera gabea. Kelerian ,1985ean izotz makina sartu zan behe solairuan portuarekin konektaturik, eta beraz behe solairuak funtzio horrekin jarraitzen du gaur egun. Goiko solairuak aldiz, arrain fabrika izan ziren duela urte batzuk, hala ere, gaur egun hutsa dago.

BALOREA: Ondare Historiko eta kulturala.Hauek Hiri historikoaren barne daude eta honek gaur egun duen babes-maila sailkatua da.
Babes maila: bi eraikinak daude ondare izendatuak babes ertainarekin.
EGINBEHARREKOA: Inguruaren birgaitzea.




Ikaslea: Ane Larrinaga Larrucea
Tutorea: Koldo Telleria Andueza

# ALDE ZAHARRA ETA KONEXIO BERRIAK

Arrantza inguruko ondare arkitektonikoaren azterketa eta gaurkotzea Lekeition





UDALETXEA


KULTUR ETXEA


POLIKIROLDEGIA
JUBILATUEN EGUNEKO ZENTROA


ABAROA JAUREGIA


MERKATUA


KOFRADIA ETA KELERIA



Ikaslea: Ane Larrinaga Larrucea
Tutorea: Koldo Telleria Andueza

# KOKAPEN GERTUA

Arrantza inguruko ondare arkitektonikoaren azterketa eta gaurkotzea Lekeition

1:1000






17


Ikaslea: Ane Larrinaga Larrucea
Tutorea: Koldo Telleria Andueza

# INGURUAREN BILAKAERA

Arrantza inguruko ondare arkitektonikoaren azterketa eta gaurkotzea Lekeition



1900

San Pedro Kofradia, Alde Zaharreko Ezpeleta Kalea eta Mataderoa zeuden.



1946

Arrantzaren garapena dela eta zenbait arrain fabrika eraiki ziren inguruan, beraien artean Kofradia atzeko hiru fabrikak,



1970

Etxebizitza eraikinak eraikitzen hasi ziren, arrain fabrikak desagertzen hasi ziren.



2017

Fabrika gehienak desagertu dira, soilik Kofradiaren inguruko hirurak mantentzen dira eta horreez gain beste bat. Inguru guztia etxebizitza eraikinez bete da, eta kiroldegia ere eraiki da bertan.

- Arrain fabrikak
- Etxebizitza eraikinak
- Kofradia, Keleria eta arrain fabrikak, eremuaren barne



Ikaslea: Ane Larrinaga Larrucea
Tutorea: Koldo Telleria Andueza


A argazkia


B argazkia


C argazkia




E argazkia


F argazkia


G argazkia




PASKUAL ABAROA

Aroatz komertzialean kokatzen da, bertan ekipamendu batzuk ere kokatzen dira. Talarekin konektatua dago eta horrek guztiak mugimendua egotea eragiten dute baina hala ere ez dago estetikoki oso zaindua, eta etxebizitza eraikin altuez osatua dago.

EZPELETA KALEA

Oso kale eztua da, komertzio gabea, etxebizitzak kokatzen dira bertan, kale eztua izatea eta kalearekin proportzioan eraikin altuak izatea kale hau toki ilun bilakatzen dute eta oso dentsoa.

PORTUA

Portuan jende mugimendu handia dago gaur egun, taberna ugari kokatzen dira ertan  portuko obrak egin zirenean Ezpeleta/Arranegi kaleen indarra galdu zuten eta dena portuko kalera mugitu zen, gaur egun bizitza gehiena portuan egiten, herritarren topagune ere bada.

## EGUNGO EGOERA

Orubea hiri lurzoru finkatuan kokatzen da ALde Zaharrean dago eta Alde Zaharraren Plan Bereziaren barne kokatuko da. Gaur egun funtzionamenduan dagoen bakarra Keleriaren behe solairua da eta hau errespetatuko da, baina erabilera berri baten beharra ikusten da orube osorako.

Gaur egun jabetza pribatua da izan ere Kofradia barriaren jabetzakoa da, hau da, arrantzaleen jabetzakoa. Bi partzelatan banatua dago, Ezpeleta 7, honek hiru eraikin hartzen ditu eta Ezpeleta 9 honek ere hiru eraikin izango ditu.
Orubearen azalera totala: 1.375,34 + 944,11 =2319,45 $m^2$
EZPELETA 7-> B+4, erabilera industriala eta 507,81 $m^2$
7002-> 1, erabilera industriala eta 321,56 $m^2$
7003-> 1, erabilera industriala eta 393,18 $m^2$
EZPELETA 9-> B+2, erabilera industriala eta 226,20 $m^2$
9002-> B+1, erabilera industriala eta 188,06 $m^2$
9003-> B, erabilera industriala eta 403,60 $m^2$

EZPELETA / eta EZPELETA 9, hau da, Kofradia Zaharra eta Keleria Alde Zaharreko Monumentu Multzoaren parte dira eta horrez gain BABES ERTAINA dute. Eraikin horietan burutzen diren lan guztietan bolumena eta lerrokadurak gorde beharko dira, kulturarako duten garrantziagatik, nahiz eta hirigintza-arauekin bat ez etorri.




Egungo partzelazioa.




Gernika-Markina Lurraldeko Zati Egitasmoa

ALDE ZAHARREKO BIRGAITZE INTEGRATUKO PLAN BEREZIAREN 12. Egikaritzapen-Unitatearen Plan-Barruko Aldaketaren Araudiaren ARABERA:
– Lur-zatiak: 1-II-6 kalearteko B-6, B-7, B-8, B-9, B-11 eta B12.
– Posta zenbaketa: Arrantzaleen Kofradiako eraikinak - Ezpeleta 7 eta 9.
Kolmenares 4tik banandutako lur-zatia. Pasaje publikoa. Ordenantza Grafikoan ateratako eraikuntza finkatzen da.

| Egikaritze sistema | Konpentsazioa |
|---|---|
| HARTUTAKO AZALERA ........................................ | 2.485,00 $m^2$ |
| *Egungo egoera* | |
| Erabilera publikoko azalera ........................................ | 69,00 $m^2$ |
| Azalera askea........................................ | 122,00 $m^2$ |
| Azalera okupatua ........................................ | 2.294,00 $m^2$ |
| Azalera eraikia ........................................ | 4.469,00 $m^2$ |
| *Egoera berritua* | |
| Erabilera publikoko azalera ........................................ | 764,00 $m^2$ |
| Ekipamendurako azalera........................................ | 1.401,00 $m^2$ |
| Guztizko muga eraikigarria ........................................ | 2.976,00 $m^2$ |
| Etxebizitzarako azalera ........................................ | 320,00 $m^2$ |
| Etxebizitzako guztizko muga eraikigarria ........................ | 1.115,00 $m^2$ |
| Etxebizitza kopurua (Batez besteko azalera 99,37 $m^2$)... | 8 |

## ORUBERAKO HIRIGINTZA PROPOSAMENA

Jabetza pribatua denez eta erabilera publiko bat proposatzen denez, udaletxeak orubea erosiko du, hiru eraikin eraitziko dira dauden egoera txarragatik beti egoera hobetzeko helburuarekin. Erabilera aldaketa emango da izan ere ez da etxebizitza erabilera beharrik aurreikusten eta baita partzelazioa. Horretarako Plan Orokorra aldatu beharko da gaur egun oruberako proposatzen den egoitza erabileratik ekipamendu erabilerara aldatzeko. eta ondoren ALDE ZAHARREKO BIRGAITZE INTEGRATUKO PLAN BEREZI berri bat egingo da eta partzelazioaaldatuko da, hiru partzelatan banatuz orubea.







EZPELETA 7-> B+4, erabilera industriala eta 507,81 $m^2$ //jabetza Kofradia berriarena izango da.
7002-> 1, jabetza pribatua// erabilera publikoa eta 75,2$m^2$
EZPELETA 9-> B+2, ekipamendu erabilera eta 226,20 behe solairuan eta 457,8 $m^2$ gainontzeko solairuetan.
SAN PEDRO 1-> 2S +B+1, ekipamendu erabilera eta 365 $m^2$




B-B' EBAKETA




C-C' EBAKETA




A-A' EBAKETA






D-D' EBAKETA

# EGUNGO EGOERA//KOFRADIA

Arrantza inguruko ondare arkitektonikoaren azterketa eta gaurkotzea Lekeition



EZPELETA KALEKO ALTZAERA



B-B' EBAKETA




A-A' EBAKETA



IPARRALDEKO ALTZAERA



MENDEBALDEKO ALTZAERA



HEGOALDEKO ALTZAERA

## SAN PEDRO KOFRADIA

Eraikin honek, 367m$^2$ ko oinplano ia karratua eta bost solairu ditu.

EGITURA zurezkoa da, eta sei ardatz ditu. Beheko bi solairuetan dinteldunak dira bao guztiak eta goiko hiruretan zirkuluerdikoak.

Hormak harrizkoak dira eta igeltsuz estaliak daude eta zokaloan, bao inguruetan, izkinetan eta solairutik solairurako tarteetan, harri landua ageri da.

Fatxada nagusiaren eskuinean diseinuaren monotonia apurtzen duen erloju handi bat kokatzen da eta ezkerraldean kanpandorre txiki bat teilatu gainean.








BEHE OINA




LEHEN SOLAIRUA




BI ETA HIRU SOLAIRUAK




BOSGARREN SOLAIRUA



Ikaslea: Ane Larrinaga Larrucea
Tutorea: Koldo Telleria Andueza




BEHE OINA



EKIALDEKO ALTZAERA




LEHEN SOLAIRUKO OINA



A-A' EBAKETA




B-B' EBAKETA




BIGARREN SOLAIRUKO OINA

## KELERIA

